

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak Down-en Sindromea duten pertsonen aldeko konpromisoa erakutsi du

*Down-en Sindromearen Munduko Egunaren kariaz, Nafarroako kolektiboaren ordezkariak erreibindikazioak helarazi dizkiete Eskubide Sozialetako, Kulturako, Osasuneko eta Hezkuntzako arduradunei*

Osteguna, 2019.eko martxoak 21

Ostegun honetan, martxoak 21, Down-en Sindromearen Munduko Eguna dela kontuan harturik, Down-en Sindromearen Nafarroako Elkarteak kide batzuk Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Kultura, Osasun eta Hezkuntza departamentuen egoitzetara joan dira esparru hauetan dituzten erreibindikazioak helarazteko xedez.



Down-en Sindromearen Nafarroako Elkarteak Laparra kontseilariaren ondoan, Eskubide Sozialen egoitzan.

Lehenik eta behin, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak hartu ditu González Tablas 7ko egoitzan, eta irakurritako testuarekin ados dagoela adierazi ondoren, "Down-en Sindromea duten pertsonen autonomia eta zahartzaroa hobetzearen aldeko eta enpleguan, etxebizitzan nahiz gizarte inklusioan bizimodu independentea bermatzeko behar dituzten baldintzak sortzearen aldeko konpromisoa" helarazi die, berarena eta Gobernu osoarena.

Handik Kultura Departamentura abiatu (Nabarrera, 39) eta Ana Herrera kontseilariak eta Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendari Carmen Orozek harrera egin diete. Herrerek, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentutik antolatutako jarduera eta programetan Down-en Sindromea duten pertsonak kontuan hartzeko borondate eta konpromisoa adierazi die, eta horrekin batera, zorionak eman dizkie aldarrikapenak zuzenean Departamentura helarazteko ekimenagatik. Orozek kultur ekintzaren arloan gauza bera egitera gonbidatu ditu.

Jarraian, Osasun kontseilari Fernando Domínguezek entzun ditu beraren departamentuaren inguruko erreibindikazioak. Domínguezek bisita eskertu eta argi utzi die bertaratutakoei Osasun Departamentuak "interesik handienaz eta jarrerarik onenaz aztertuko duela proposaturiko neurriak aplikatzeko aukerarik ba ote dagoen, Down-en Sindromea duten neska-mutilen bizi-kalitatea hobetzeko". Halaber, kontseilariak aitortenezko hitzak esan ditu senitartekoei eta elkartearen arduradunei buruz, "kolektibo

honen aldeko lan eskerगतिक”, eta bertan ziren guztiei eskatu die, bereziki Down-en Sindromea duten pertsoneri, “ahalegin eta ilusio berberaz lan egiten jarrai dezatela, gizarteko esparru guztietan erabateko inklusioa lortu arte”.

Azkenik, Hezkuntza Departamenturako sarreran, iritziak trukatu dituzte elkarteak, Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Pérezek eta Antolamendu, Orientazio eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuko zuzendari Ander Domblásek. Pérezek, aurten hautaturiko “Gaur nigatik, bihar zugatik” leloari jarraiki, argi utzi du “gaur eta beti zuengatik izanen dela, izugarrizko zorte ona baita zuek ikasgelan izatea”. Halaber, kalitatezko hezkuntza inklusiboak “oso oinarri argia” duela esan du: “bizitza osoko ikasketa sustatuko duen hezkuntza jasotzeko eskubidea”.

Bestalde, Domblásek adierazi du “Down-en Sindromea duten ikasleak ohiko ikasgelan txertatzeko aukera bermatu eta sustatzeak” izan beharko lukeela helburu orokorra. Horren harira, bi arduradunek modu positiboan baloratu dute behar bereziak izan eta ohiko ikastetxeetara joaten diren ikasleen kopuruan gertatzen ari den igoera, ikastetxe horietan inklusioa eta eskola arrakasta bermatzen zaizkien heinean. CREENA da ikasle hauen arreta koordinatzen duena etapa guztietan.

Horrekin batera, argi utzi dute, Lanbide Heziketan Nafarroa dela desgaitasun intelektualari atxikitako eskaintzarik handiena duten autonomia-erkidegoetako bat, ikastetxe berezietan nahiz Foru Komunitate osoko ohiko moduluetan. Taldeak daude hogeita hamar bat ziklotan, 4 urteko iraupenarekin, eta CREENA arduratzen da horien harrera eta arreta guztiaz.

### Elkartea

Down-en Sindromearen Nafarroako Elkarte irabazi-asmorik gabeko entitatea da, Down-en Sindromea duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta eskubideak defendatzeko ekintzak bideratzen dituena. Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten du eta Down Espainiari (Down-en Sindromearen aldeko Erakundeen Espainiako Federazioa) atxikita dago.

150 bazkide eta 200 laguntzaile baino gehiago ditu. Elkarte 1990ean eratu zen Down-en Sindromea zuten pertsonen guraso talde baten ekimenez, desgaitasun honek dakartzan arazo berezietarako konponbideak bilatu ahal izateko.



Laparra, elkartearen aldarrikapenen irakurketari kasu egiten.


### Galería de fotos



En el claustro del Departamento de Cultura, junto a la consejera Herrera y la directora Carmen Oroz.



En Salud, con el consejero Domínguez.



La asociación se ha reunido también con los responsables de Educación, Pérez y Domblás.